

ARTEA. Bere obretan argi-ilunak eta kontraesanak jasotzea izan zen artistaren grina

Mende hasierako Paris dotore baina dekadentearen isla ikusgai Lizarran

‘Ismael Smith: Cuaderno de París’ erakusketa eskaintzen du Gustavo de Maeztu museoak

Jon Orzaiz | IRUÑEA

Argiaren hiriak alde ilunak ere baditu, eta horiek paperean irudikatzea izan zen Ismael Smith marrazkilari eta eskultorearen grina XX. mendearen hasieran. Orain, marrazki haiek ikusteko aukera dago zabalik Lizarran, Mapfre Vida fundazio kulturalak eta Gustavo de Maeztu museoak antolatutako erakusketa-aren barnean.

Fundazio kulturalako zuzendari nagusi Pablo Jimenez Buriñoren esanetan, «Smithek I. Mundu Gerra baino lehenagoko Parisen irudia ezin hobeki ematen du: dotorea, erakargarria, baina maltzurra eta dekadentea aldi berean, eta hori da erakustaldiak duen ezaugarriarik erakargarriena».

Erakusketa Mapfre Vida fundazioak erositako marrazki bilduman oinarritzen da. «Ismael Smithen 1911 urtetik 1914ra bitartean Parisen egindako marrazki-koaderno bat da bildumaren abiapuntua, baina Bartzelonan egindako marrazki batzuk ere badaude ikusgai. Horietan guztietan, marrazkilariaren estilo berezia argi eta garbi ikus dezakegu», azaldu zuen Jimenezek.

Smithen Parisen ikusten zituen kontraesanak marraztu zituen, eta hori da, Jimenezen iritziz, erakusketaren funtsa. «Dotoreziaz betetako mundu bat marraztu zuen: hotel eta jatetxe handiak, gizonak etiketa-jantzietan eta emakume soinekodunak... Baina, aldi berean, hiriaren aurpegi maltzurra ere ikus dezakegu Smithen marrazkietan: izaki androginoak, gaiztotasuna, inozentzia eza eta hainbat perbertsio txiki. Parisko gizartearen dotoreziak eta edertasunak maltzurkeriarekin talka egiten dute Smithen marrazkietan. Hala ere, hau guztia ez da marrazkilariaren asmakuntza, 1910eko Paris islatu besterik ez baitzuen egiten».

Maezturakin, antzekotasunak eta desberdintasunak

Fundazio kulturalako zuzendariaren ustez, erakusketa Lizarran egitea «oso egokia izan zen, Ismael Smithen eta Gustavo de Maeztu ezaugarri komun asko baitzituzten: kronologikoki, ia garai berean bizi izan ziren, biek interes handia



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Parisen egindakoetan zein Bartzelonakoetan, egilearen estilo berezia agerian dago.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Gustavo de Maezturentzat bezala, Ismael Smithentzat ere interes handia izan zuen marrazkigintzak.

zeukaten marrazkigintzan, eta lanaren parte garrantzitsu bat Espainiatik kanpo egin zuten, Gustavo de Maeztuk Londresen eta Ismael Smithen Parisen».

Hala ere, bi margolarien arteko desberdintasunak ere nabariak izan ziren, Jimenezen esanetan: «Smith marrazkilari eta eskultore fina izan zen, baina mende bukaerako estetikak asko eragin zion. Hori marrazki

hauetan ederki ikus dezakegu, aro baten amaieraren estiloa daukatelako. Horregatik, askotan bere marrazkietan miresten dugun edertasuna izugarria da; morbositatearen eta maltzurkeriaren mugak ere zeharkatzen ditu. Maeztu, aldiz, askoz modernoagoa da, mugaren beste aldean kokatzen delako, arte berri baten abiapuntuan».

Smithen lanen erakusketak Gustavo de Maeztu museoari

ere mesedea egingo diola adierazi zuen adituak. «Zentzu handia ematen dio erakusketari Gustavo de Maeztu museoan izateak; baina, aldi berean, bi margolarien arteko konparazioak Maeztu bera hobeto ezagutzeko balio du».

Ismael Smith: Cuadernos de París erakusketa irailaren 29a arte egongo da ikusgai Lizarrako Gustavo de Maeztu museoan erakusketa aretoan.

LITERATURA

‘Txistu y Tamboliñ’-ek Internet bidez plazaratu du 8. zenbakia

Erredakzioa | DONOSTIA

Bederatzi urteko isilaldia urratuz, *Txistu y Tamboliñ* literatur aldizkariak zortzigarren zenbakia eman du argitara; ez, ordea, paperean inprimaturik, Internet sarean baizik, www.txistuytambolin.com helbidean. *Txistu y Tamboliñ* aldizkariak zazpi zenbaki eman zituen argitara, 1983tik 1993ra bitartean, eta harrezkero ez da besterik izan egundaino.

Txistu y Tamboliñ sareratu berriak Gioconda berezi bat dakar lehen orrialdean, aurreneko *Txistu y Tamboliñ*-en azaldutako poster huraxe bera hain zuzen ere. Zenbaki guztiak bezala, berriak ere badi izenburu edo lelo bat: *y este coño es mío*.

Poemak, narrazioak, atsoitzak, testu klasikoak eta zinema gidoi bat eskaintzen ditu *Txistu y Tamboliñ* sareratu berriak.

Prosa zientifikoa du gai nagusi eta ardatz ‘Hegats’ aldizkariaren 30. zenbakiak

Erredakzioa | DONOSTIA

Iaz Donostian prosa zientifikoa buruz egindako jardunaldietako hitzaldi batzuk bildu ditu *Hegats* aldizkariaren zenbaki berriak, 30.ak. Inaki Irazabalbeitia, Jose Ramon Etxebarria, Joseba Felix Tobar, Kepa Altonaga, Marian Iriarte, Jose M. Elortza eta Jesus M. Ugalde dira argitaratutako lane egileak; azkeneko hiru idazle horien lana elkarlanean sortua da: *Euskarazko prosaren eta kimikaren arteko kimika*.

Ausias March-en zazpi poema —Ibon Sarasolak euskaratuak— eta Josu Jimenez Mayaren ipuin bat eskaintzen du *Hegats*-ek *Literaturbideak* atalean.

Horretaz gain, Salbador Garmendiari elkarriketa egin dio Maite Gonzalez Esnaiek eta Mikel Zabalaen *Euskaldunak matxino* liburua komentatu du Tere Irastortzak.